



# **Euskararen egoeraren diagnostikoa Ermuan**

## **ERMUKO UDALA**

*2004ko uztaila*



# Aurkibidea

## Orrialdea

1	SARRERA.....	3
2	METODOLOGIA .....	5
3	DESKRIBAPEN DEMOGRAFIKOA .....	8
3.1	DEMOGRAFIA.....	8
3.2	EUSKARAREN EZAGUTZA MAILA.....	11
3.2.1	ALFABETATZE MAILA .....	14
3.2.2	LEHEN HIZKUNTZA.....	16
3.2.3	HEZKUNTZA SISTEMA.....	17
3.3	ETXEKO HIZKUNTZA .....	19
3.4	ONDORIOAK .....	21
4	ERMUKO BIZTANLERIARI INKESTA .....	22
4.1	HIZKUNTZA GAITASUNA.....	23
4.2	EUSKARAREN TRANSMISIOA.....	24
4.3	EUSKARAREN ERABILERA .....	28
4.4	JARRERA ETA IRITZIAK EUSKARAREN SUSTAPENAREKIKO .....	33
4.5	LEHENTASUNEZKO EREMUAK EUSKARAREN SUSTAPENEAN ELKARRIZKETATUEN ARABERA.....	34
4.6	EUSKARA SUSTATZEKO UDALAK EGINDAKO AHALEGINAREN BALORAZIO OROKORRA.....	36
5	EUSKARAREKIKO JARRERA.....	38
5.1	EUSKARAREN EZAGUTZA HOBETZEA .....	38
5.2	ATAL HONETAKO ONDORIOAK .....	40
6	EUSKARAREN EGOERAREN DIAGNOSTIKOA ERMUAN.....	43
6.1	AMIA MATRIZE OROKORRA.....	44
6.2	ADMINISTRAZIOA.....	49
6.3	ALFABETATZEA ETA EUSKALDUNTZEA.....	52
6.4	MERKATARITZA ETA OSTALARITZA.....	54
6.5	KULTURA ETA AISIA.....	56
6.6	HEZKUNTZA.....	58
7	HELBURU ESTRATEGIKO NAGUSIEN AURRERAPENA.....	61



## 1 SARRERA

Azken urte hauetan euskararen normalizazioaren bidean urrats garrantzitsuak egin dira eta EAEko zonalde eta herri askotan hainbat esperientzia jarri dira abian. EAE osorako hainbat hizkuntza normalizazio plan egin dira, besteak beste, Eusko Jaurlaritzaren Euskararen Erabilera Areagotzeko Plan Nagusia (1998ko uztailean Gobernu Kontseiluak onartutakoa) eta Kontseiluak sinatutako akordioa. Akordio horretan EAEko hainbat gizarte eragileri, bakoitzari bere eremuan, euskararen normalizazioaren aldeko konpromisoa hartzeko gonbitea luzatzen zitzaien.

Testuinguru honetan, Ermuko Udalaren ekimenez hizkuntza normalizazio prozesua abian jarri da. Prozesu honek bi helburu ditu: batetik, udalerrian euskarak duen egoeraren diagnostikoa egitea eta bestetik, etorkizuneko helburu eta ildo estrategikoak definitzea. Helburu eta ildo estrategiko horiek udal ardura-dunen lana gidatu beharko dute hizkuntza normalizazioaren bidean.

Prozesu hori garatzeko hiru zati ezberdin aurreikusten dira:

- **1. ZATIA:** Ermuan euskarak duen egoerari buruz informazioa biltzea, bi ikuspegitatik:
  - Ermuko biztanleriaren datu soziolinguistikoetan oinarrituta, euskararen egoera deskribatzen duten udalerriko datu orokorrek aztertuz: biztanleria, euskararen ezagutza, erabilera, azken urteetako bilakaera...
  - Ermuko biztanleriari inkesta bat egitea alderdi hauen inguruan: hizkuntzaren ezagutza, hizkuntzaren erabilera ohiturak, euskararen sustapenean udalak egindako lanaren balorazioa, landu beharreko eremu nagusienak...
- **2. ZATIA: Egoeraren diagnostikoa.** Aurreko fasean bildutako datuak aztertu eta baloratzeko lantalde batzuk sortuko dira eta talde horietatik ondorioztatukoak bilduko ditugu hemen. Ermuko eragileez osatutako talde sektorialak izan dira eta bakoitzak, identifikatutako alor bakoitzean euskarak duen egoeraren diagnostia burutu du. Alorrek honakoak izan dira: Administrazioa, Euskalduntze-Alfabetatzea, Kultura eta Aisia, Hezkuntza eta Merkataritza eta Ostalaritza.



- **3. ZATIA: Ondorioak eta etorkizunerako helburu nagusiak.** Atal honetan, egoeraren diagnosia kontuan izanda, hainbat ondorio eskaintzen dira eta etorkizunerako erronka nagusiak identifikatzen dira. Bere ezarpenerako, definizio eta zehaztasun maila handiagoa eskatzen duten erronkak dira hain zuzen ere.



## 2 METODOLOGIA

Diagnostiko hau gauzatzeko erabilitako metodologia, batez ere, parte hartzean oinarritu da. Bai, informazio bilketan eta baita bere balorazioan ere Ermuko eragileen ahalik eta parte hartze zabalena lortu nahi izan da.


Partaidetza hori hainbat eratara bideratu da:

- Ermuko biztanleriaren artean **400 elkarrizketa** egin dira.
- **Sektorekako Lantalde Bereziak** antolatu dira (Bost lantalde eta bakoitzean, batez beste, 6/7 pertsona).
- Kontrasterako lantalde nagusi bat egon da, **Batzorde Eragilea**. Bertan, foro guztietan lortutako emaitzak kontrastatu dira.

Era berean, Interneteko atari bat egokitu da. Bertan, ezarritako dokumentuen gaineko ekarpenak eta kontrasteak egiteko aukera eman da. Dena den, bide honen bitartez lortu den ekarpen maila oso baxua izan da.

Proiektuaren antolamendu egitura beraz, honakoa izan da:

**Prozesuaren antolamendu egitura**




- **Jarraipen Batzordea:** Gobernu organoz osatua. Planaren onarpenaz arduratuko da.
- **Batzorde Eragile edo betearazlea:** Plangintzaren garapen exekutiboaz arduratuko da. Bere osaera honakoa da:



Izen Abizenak	Kargua
Gotzone Txurruka Txopitea	Udal Euskaltegiko zuzendaria
Idoia Carracedo Gerrikabeitia	Udaleko Euskara itzultzailea
José Antonio Fernández Celada	Udal idazkaria
José Luis Clemente Albíz	2. Alkateordea
Juanmi Bravo Garitagoitia	AEK Kaltxango Euskaltegiko zuzendaria
M <sup>a</sup> Asun Ardanza Telleria	6. Alkateordea
Merche González de Celís	Gizarte-Ongizate eta Kultura Alorreko zuzendaria
Nerea Berriozabal	Euskal Birusa
Roberto Tejada Telleria	Udaleko Euskara itzultzailea

- **Idazkaritza tekniko:** LKS eta Ermuko Euskara Zerbitzuko arduradunenez osatua. Idazkaritza Teknikotik, proiektuaren jarraipen operatiboa egin da.

### Jarraitutako metodologia eta prozesua honakoak izan dira:





## **1. ZATIA:**

### **EUSKARAK ERMUAN DUEN EGOERAREN DESK- RIBAPENA:**

- A).- Ermuko datu estatistikoaren azterketa**
- B).- Biztanleriari inkesta**




### 3 DESKRIBAPEN DEMOGRAFIKOA

#### 3.1 DEMOGRAFIA

Ermua, Bizkaia Ekialdeko udalerrria da, Durangaldean dago eta Gipuzkoarekin muga egiten du. 2001eko erroldaren arabera **16.379 biztanle** ditu, Durangaldeko biztanleriaren %18,5. Biztanleriaren dentsitatea oso handia da: 2.709 biztanle Km<sup>2</sup> (EAEk 288 biztanle ditu Km<sup>2</sup>).

Azken bi hamarkadetan **biztanleriaren beharakada nabarmena** gertatu da: 1981 eta 2001 artean Ermuko biztanleria %10 jaitsi da, EAEn %2 eta Bizkaian %4 jaitsi den bitartean. Jaitsiera horren arrazoietakoa bat honakoa: 60 eta 70. hamarkadetan Ermura etorritako pertsonak beraien lan zikloa amaitu dutela eta beraien jatorrizko herrietara itzuli direla.

**1. grafikoa**  
**Biztanleriaren bilakaera. 1981-2001.**




Iturria: Eustat.



Horregatik, biztanle kopurua asko jaitsi bada ere, Ermuko **zahartze tasa** Durangaldea, Bizkaia edo EAEn baino txikiagoa da eta 65 urte baino gehiago dituzten biztanleen ehunekoa gainerako lurralde horietan baino askoz txikiagoa da.

**2. grafikoa**  
**Zahartze tasa. 2001.**




Iturria: Eustat.

Ermuko **egitura ekonomikoaren** profilari dagokionez industriak pisu handia duela aipatu beharra dago; Durangaldean duena baino zertxobait handiagoa eta EAEn duena baino askoz handiagoa. Eraikuntzak ere, aipaturiko gainerako lurraldeetan baino pisu handiagoa du. Nola ez, zerbitzuen sektoreak pisu espezifikoa txikiagoa du. Ermuko biztanleriak harreman estuak ditu Eibar eta Elgoibarrekin, industria tradizio handiko bi herrirekin, hain zuzen.

EAEn, Bizkaian eta Durangaldean nekazaritza sektorearen presentzia hutsaren hurrena da. Ermuan are nabarmenagoa da marginalitate hori: biztanleria okupatuaren %0,26 aritzen baita nekazaritzan.



**3. grafikoa**  
**Biztanleriaren okupazioa aktibitate motaren arabera. 2001.**



Iturria: Eustat.

Beraz, eta orain arte esandakoa kontuan hartuz (biztanleriaren dentsitatea, zahartze tasa, industriaren presentzia...) hiri kutsua antzematen zaio Ermuari.



## 3.2 EUSKARAREN EZAGUTZA MAILA

Euskal Estatistika Erakundeak argitaratutako azken datuen arabera -2001eko errolda-, soilik, biztanleriaren %25 da euskal hiztuna. Beste %25 ia euskal hiztuna da eta %50 erdal hiztun elebakarra da. Ermuko euskal hiztunen portzentajea Bizkaikoa baino zerbait txikiagoa da. Baina Ermuko euskararen ezagutza maila Durangaldekoarekin konparatuz gero, txikia dela esan dezakegu.


**Taula 1: Biztanleria eta bere euskararen ezagutza maila. 1981-2001.**

	BIZTANLERIA		EUSKAL HIZTUNAK		IA EUSKAL HIZTUNAK		ERDAL HIZTUN ELEBAKARRAK		BILAKAERA		
	1981	2001	1981	2001	1981	2001	1981	2001	BIZT.	EU.	GAZT
<b>ERMUA</b>	18.164	<b>16.379</b>	2.199	<b>3.988</b>	1.987	<b>4.064</b>	13.978	<b>8.3237</b>	↓	↑	↓
<b>DURANGALDEA</b>	87.844	<b>88.211</b>	32.184	<b>41.619</b>	11.983	<b>19.503</b>	43.677	<b>39.961</b>	↑	↑	↓
<b>BIZKAIA</b>	1.153.031	<b>1.097.288</b>	177.522	<b>273.872</b>	154.551	<b>272.034</b>	826.958	<b>551.382</b>	↓	↑	↓
<b>EAE</b>	2.076.448	<b>2.033.247</b>	447.776	<b>656.980</b>	300.394	<b>470.124</b>	1.328.278	<b>906.143</b>	↓	↑	↓

**Iturria: Eustat.**

**4. grafikoa**  
**Euskararen ezagutza mailaren bilakaera. Ermua.**


Euskararen ezagutza mailaren bilakaera esanguratsua dela azpimarratu behar da. 1981-2001 aldian, euskal hiztunen kopuruak eta ehunekoak gora egin du. Dena den, Autonomia Erkidegoan fenomeno orokortua da aipatu den hori eta gertatutako hazkundera antzekoa da kasu gehienetan.



Ondorengo grafikoez kasu bakoitzean gertatutako bilakaera deskribatzen dute.




**5. grafikoa**  
Euskararen ezagutza maila 2 urte baino gehiagoko biztanleriaren artean. 1981.



Iturria: Eustat.

**6. grafikoa**  
Euskararen ezagutza maila 2 urte baino gehiagoko biztanleriaren artean. 2001.





Ermuko datuak eta bere ingurukoak oso ezberdinak dira. Hala ere, euskararen ezagutza nabarmen handitu den bitartean, erdaldun elebakarren ehunekoak modu esanguratsuan jaitsi da.



Euskal hiztunen deskribapenean sakontzeko asmoz, talde honen adinari egiten zaio so. Ermuko euskal hiztunen komunitatea oso talde gaztea dela azpimarratu behar da. Ia erdiak, 2001 urteko zentsuaren arabera 20 urte baino gutxiago ditu eta %71ak 40 urte baino gutxiago. 1981-2001 epealdian gertatutako euskararen ezagutzaren bilakaera positiboa, batez ere, adinik gutxienerako kolektiboetan gertatu da.

Hurrengo grafikoetan aditzera ematen den moduan, 1981. urtean 19 urtetik beherakoen artean euskal hiztuna %10 soilik zen bitartean, 2001. urtean ia %61era igotzen da euskal hiztunen ehunekoa. Gainerako adin taldeetan, ezberdintasunak oso esanguratsuak ez badira ere, bilakaerak adierazten du euskal hiztunen ehunekoa hazi egin dela 50 urteko adin taldera arte. Adin horretatik aurrera, euskal hiztunen ehunekoa jaitsi egin da. Berrero ere, EAEko emaitzak antzerakoak dira, baina Durangaldekoak ezkorragoak dira. Eskualdean 20 urtetik beherako gazteen %75 euskal hiztuna da.






### 3.2.1 ALFABETATZE MAILA

Aipatu bezala, Ermuko euskal hiztunen ehunekoa inguruko herrietakoa baino txikiagoa izan arren, euskal hiztunen baitako alfabetatuen portzentajea antzekoa da: Ermuan eta inguruko herrietan euskal hiztunen artean %80 alfabetatua da.

Euskararen ezagutza mailarekin gertatu bezala, alfabetatuen ehunekoa ere asko hazi da. 1981ean euskal hiztunen artean alfabetatuak %51 ziren bitartean, 2001ean portzentaje hori %80koa zen.

7. grafikoa: Euskararen ezagutza eta alfabetatze maila. 1981 eta 2001.




Iturria: Eustat.



Hurrengo grafikoan agertzen den bezala alfabetatzeari dagozkion ehunekoak antze-koak dira Durangaldean eta Ermuan.


**8. grafikoa: Euskarazko alfabetatze maila Durangaldean. 1981 eta 2001**



Iturria: Eustat.

Egoera honetan noski, adinak eragin zuzena du. Horrela, zenbat eta urte gehiago izan, euskaraz alfabetatutakoen kopurua baxuagoa da. Berrogei urtetik beherako euskal hiztunen ia %80a euskaraz alfabetatua den bitartean, 20-30 arteko adin taldean ia %95 da euskaraz alfabetatua. Aldiz, 50 urtetik gora kopuru hori %60ra jaisten da. Durangaldeko eta EAEko batez bestekoarekin alderatuta ez da ezberdintasun esanguratsurik nabarmentzen.

**9. grafikoa**  
**Euskarazko alfabetatze maila adinaren arabera. Ermua. 2001.**






### 3.2.2 LEHEN HIZKUNTZA

Ermuko biztanleen artean %24 euskal hiztuna da. Lehen hizkuntza, 3 urte bitartean ikasitako hizkuntza da. Soilik, %15ak du euskara (bakarrik edo gaztelaniarekin batera) lehen hizkuntzatzat. Gainerako %9ak beste eremu batzuetan ikasi du euskara: lagunekin, euskaltegietan, beste senide batzuekin... Kasu gehienetan, euskararekin lehen harremana hezkuntza sistemako eredu euskaldunen bidez izan ohi dute.

Ez da bilakaera azpimarragarrik gertatu eta 1986-2001 artean lehen hizkuntzatzat euskara (bakarrik edo gaztelaniarekin batera) zutenen ehunekoa %15ekoa izan da. Ehuneko hori Bizkaikoaren antzekoa da, baina Durangaldekoarekin konparatuz gero oso baxua da.

#### 10. grafikoa

Biztanleriaren lehen hizkuntzaren bilakaera. 1986-2001.



Iturria: Eustat.

Aztertutako gainerako alderdietan nabarmentzekoa da, Ermuan, Euskal Autonomia Erkidegoan ofiziala ez den hizkuntzaren bat lehen hizkuntzatzat duten biztanleen ehuneko altua. Kasu gehienetan beste erkidegoetatik (Galiziatik adibidez) etorri eta beraien hizkuntzaren transmisioa mantentzen duten familiak dira.




### 3.2.3 HEZKUNTZA SISTEMA

Aurkezturiko datuekin konparatuz, etorkizunerako aurreikuspenak itxaropentsuagoak dira, haur eta lehen hezkuntzan matrikula gehienak B eta D ereduetan izan baitira. Honela, 2002/2003 ikasturtean haur hezkuntzako ikasleen %86 B eta D ereduetan matrikulatu zen. Eskualdean dagoen erdal ereduko zentro bakarra Ermuan kokatua egoteak, hizkuntza eredu honetako matrikulazioak askoz altuagoak izatea ekarri du, eskualde guztiko haurrak Ermura baitatoz. Eskolatzte datuen arabera, Haur hezkuntzan %13,6 dira, Lehen Hezkuntzan %25,2 eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan, %27.

#### 11. grafikoa

Matrikulazio ehunekoa ereduaren arabera. 2002/2003 kurtsoa.



Iturria: Eustat

Matrikulen joerak B eta D ereduaren aldekoak izan badira ere, azpimarragarria da zentzu honetan emandako inflexio puntua. Horrela, D ereduko matrikulak jaitsiaz doaz 98-99 kurtsoa ezkerotik, A lehenengo eta B geroago izanik, protzientajeetan gehitzen diren ereduak.



Datu horien arabera, D ereduko matrikulazioa egonkortu egin dela aipatu behar dugu, beharrezko joera txiki batekin. Hala ere, beharrezkoak lirateke azterketa zehatzago batzuk eta azken aldian antzemandako tendentzia hori mantentzen dela frogatzea, horrelako baieztapenak egin aurretik.


**Taula 2 Haur Hezkuntzako matrikulazioaren bilakaera hizkuntza ereduaren arabera 1996-2003.**

	96-97		97-98		98-99		99-00		00-01		01-02		02-03	
	Kop.	%	Kop.	%	Kop.	%	Kop.	%	Kop.	%	Kop.	%	Kop.	%
<b>A</b>	60	%12,5	51	%10,5	46	%10,0	57	%11,7	80	%16,1	72	%14,3	72	%13,6
<b>B</b>	206	%42,7	210	%42,9	195	%42,3	198	%40,7	190	%38,2	224	%44,6	257	%48,4
<b>D</b>	216	%44,8	228	%46,6	220	%47,7	232	%47,6	228	%45,7	206	%41,1	202	%38,0

Iturria: Eustat.

## 12. grafikoa

**Haur Hezkuntza matrikulazioaren bilakaera hizkuntza ereduaren arabera. 1996-2003.**



Iturria: Eustat.




### 3.3 ETXEKO HIZKUNTZA

Errealitate honen gutxi gorabeherako hurbilpen baterako Euskal Estatistika Erakundeak (Eustat) biztanleriaren erroldaren bidez lortzen dituen datuetara jo dugu. Etxeko hizkuntza, etxe barruan maiztasun handienez hitz egiten den hizkuntza da; lehen hizkuntzaren kasuko erantzun aukera berak onartzen direlarik: euskara, gaztelania, biak edo besteren bat.

Aipatutako estatistika horren arabera, bere burua euskal hizkuntzat jotzen zuten 4.000 pertsonetatik, soilik, %24ak erabiltzen zuen euskara etxean. Hau da, 1.000 pertsona eskasek. Biztanleria osoarekin alderatuaz, ez da bere %6ra iristen. Are gehiago, ehuneko hori gero eta txikiagoa da.


**13. grafikoa**  
**Etxeko hizkuntzaren bilakaera. 1991-2001.**



Iturria: Eustat.



**14. grafikoa**  
**Etxean euskaraz hitz egiten duten euskal hiztunen portzentajearen bilakaera.**



<b>ERMUA</b>	<b>1991</b>	<b>1996</b>	<b>2001</b>
<i>Biztanleria</i>	<b>17.673</b>	<b>17.052</b>	<b>16.379</b>
<i>Euskal hiztun kopurua</i>	<b>2.757</b>	<b>3.880</b>	<b>3.988</b>
<i>Euskara etxeko hizkuntza moduan</i>	<b>1.037</b>	<b>1.018</b>	<b>950</b>
<i>Euskara etxeko hizkuntza moduan duten euskal hiztunen %</i>	<b>37,61%</b>	<b>26,24%</b>	<b>23,82%</b>
<i>Euskara etxeko hizkuntza moduan duten biztanleen %</i>	<b>5,87%</b>	<b>5,97%</b>	<b>5,80%</b>

Iturria: Eustat.

Etxean euskara gutxi erabiltzearen arrazoietakoa honako hau izan daiteke: euskal hiztunen artean asko euskaldun berriak direla eta horiek, kasu gehienetan, etxean ez dutela euskaraz komunikatzeko solaskiderik. Beraz, euskara etxean gutxi hitz egiten dela esatea baino egokiagoa da euskal hiztunen kolektiboaren baitan euskaldun berriak gero eta gehiago direla esatea. Izan ere, euskara etxeko hizkuntza gisa erabiltzen duten biztanleen ehunekoa ia konstante mantentzen da.



### 3.4 ONDORIOAK

Aurreko ataletan aipatutakoaren arabera, honako ondorio hauek azpimarratuko genituzke:

- Biztanleriaren **jaitiera azpimarragarria** 1981-2001 aldian. Biztanleria %10 jaitsi zen aldi horretan.
- Eskualdean, probintzian edo EAEn baino **zahartze tasa baxuagoa**, erretiratutako batzuk euren jaioterrira itzuli direlako.
- Biztanleriaren okupazioari dagokionez, **industria sektorearen nagusitasuna**.
- **Euskararen ezagutza maila** baxua da inguruko herriein konparatuz gero. Erroldaren arabera, biztanleriaren %24ak euskal hiztuna dela dio.
- Euskararen ezagutza mailaren **bilakaera** positiboa izan da. 1981ean euskal hiztunak %12 ziren eta 2001ean aldiz, %24. Hala ere, inguruko herriekiko diferentzia mantendu egiten da.
- **Euskal hiztunen artean alfabetatutakoak** %80 dira.
- Lehen Hezkuntzan **irakaskuntza eredu** euskaldunak (B eta D ereduak) nagusitzen badira ere, eredu horietan matrikulatutakoen ehunekoa txikia da. Batez ere, Ermuan dagoelako eskualdeko erdal ereduko hezkuntza zentro bakarra.
- Irakaskuntza ereduetako matrikulazioaren **bilakaeraren** arabera, ez da ikusten euskarazko ereduen gorakadarik. Alderantziz, geldialdi bat gertatu da.
- Orokorrean, Ermuko datuen arabera, udalerrri hau **EAEko erdaldunenetakoa da** eta salbuespena da Durangaldean.



## 4 ERMUKO BIZTANLERIARI INKESTA

Atal honetan Ermuko biztanleei egindako inkestaren emaitzak laburtuko ditugu. Txosten honen eranskinean **inkesta eta emaitza osoak daude**.

Informazio bilketaren atal nagusia inkesta izan da. Inkestaren bidez, euskararen ezagutzari, erabilera eremuei, erabilera guneei, erabiltzeko nahiz ez erabiltzeko arrazioei, udalak egindako lanaren balorazioari, eta abarri buruz galdetu da.

Hurrengo taulan aipaturiko inkestaren fitxa teknikoa duzu:


<b>Unibertsoa:</b> Ermuko biztanleria 16 eta 65 urte bitartean			
<b>Metodologia:</b> Elkarrizketa pertsonala, egituratutako galdetegi batean oinarrituta.			
<b>Ikerketa mota:</b> Kuantitatiboa			
<b>Planteamendu metodologikoaren xehetasunak:</b> Azterketa 400 elkarrizketetan oinarritu da. (e = +- %5ekoa lagin osorako eta %95,5eko konfiantza maila, 2 sigma). Lagina, unibertsoaren hautaketa aleatoriorako irizpideen arabera egin da, laginaren banaketa kalkulatzeko adin tarte eta sexu ezberdinen pisua kontuan hartuz.			
<u>Laginaren egitura</u>			
<u>Adin tartekak</u>	Gizonak	Emakumeak	Guztira
15 -19	16	15	31
20 - 24	23	22	45
25 - 29	27	23	50
30 - 34	25	22	47
35 - 39	21	21	42
40 - 44	20	19	39
45 - 49	19	19	38
50 - 54	20	18	38
55 - 59	20	19	39
60 - 64	16	15	31
TOTAL	207	193	<b>400</b>
<b>Informazioaren ustiapena:</b> datuak BARBRO azterketa estatistikarako programaren bidez prozesatu dira. Ehuneko bertikalak Ji karratua estatistikoa aplikatuz zehatzago aztertu dira (laginaren balio osoen eta laginaren segmentu zehatzen balioen arteko bariazioen adierazgarritasun azterketa). Era berean, batez bestekoak T Student estatistikoa aplikatuz zehatzago aztertu dira.			



## 4.1 Hizkuntza gaitasuna

Txosten honen lehenengo atal honetan Ermuko bizilagunen hizkuntza gaitasuna aztertuko dugu. Kasu honetan, hizkuntza gaitasuna, ermuarrek, alor honetan euren buruaz egiten duten definizioa da.

15. grafikoa: Hizkuntza gaitasunaren definizioa



Euren buruaz ermuarrek egiten duten definizioan, ia erdiak, maila batean edo bestean, bere burua elebiduntzat jotzen duela ikus dezakegu (%45,8). Elebidun pasiboen kasuan zerbait ulertu eta zerbait mintzatzeko gai dira.

EAEko batez bestekoarekin konparatuz, Ermuko euskararen ezagutza maila baxuagoa dela nabarmendu behar dugu. Ermuko erdaldun elebakarren kopurua EAEko erdaldun elebakarren kopuruaren bikoitza da.

Adinari so eginez gero, biztanleak zenbat eta gazteagoak izan orduan eta handiagoa da elebidunen portzentajea. 16 urtetik beherakoen artean, %16a bakarrik da erdal elebakarra.

Taula 3 Hizkuntza gaitasunaren definizioa adinka.


1.G. Hizkuntzaren ikuspegitik, zelan definitzen duzu zure burua?	TOTALA	Adina				
		16-24	25-34	35-49	50-64	65 urte +
	<b>400</b>	<b>73</b>	<b>78</b>	<b>94</b>	<b>85</b>	<b>70</b>
Euskaldun elebakarra	%0,80	%0,00	%1,30	%1,10	%0,00	%1,40
Elebiduna	%26,50	*%49,3	%29,50	%25,50	*%15,3	*%14,3
Elebidun pasiboa	%19,30	*%34,2	%24,40	%19,10	%12,90	*%5,7
Erdaldun elebakarra	%53,50	*%16,4	%44,90	%54,30	*%71,8	*%78,6

(\* ) Batez bestekotik esanguratsuko desbideratzen diren aspektuak adierazten ditu.



**Elebitasun mailari dagokionean**, bere burua elebiduntzat jotzen dutenen artean, gehiago dira gaztelaniaz erraztasun handiagoa dutenak. Elebidunen ia erdia hobeto moldatzen da gaztelaniaz.

**16. grafikoa: Zure elebitasun maila sailka ezazu**  
**Oinarria: 106 elebidun aktiboak**




Adin taldeei dagokionez, gero eta gazteagoak izan orduan eta handiagoa da gaztelania nagusi duten elebidunen kopurua. Hau da, gazteenen artean elebidunak gehiago dira, baina elebidun horien artean gaztelaniaz erraztasun handiagoa dutenak gehiengo dira.

## 4.2 Euskararen transmisioa

Atal honetan euskararen transmisioari so egingo diogu, elkarrizketatuaren lehen hizkuntza eta bere gurasoena aztertuz. Lehen hizkuntza moduan gaztelania izan eta euskara ikasi dutenek zein modutan ikasi duten ere aztertu dugu. Honela, euskara transmititzeko bideak eta horiek gaztelaniarekiko duten kokapena zehaztu dezakegu.

**17. grafikoa: Esango al didazu zein den zure ama hizkuntza?**

**Oinarria : 400 elkarrizketatu**



Elkarrizketatuen ia hiru laurdenak gaztelania du lehen hizkuntzatzat (lehen hizkuntza: 0 eta 3 urte bitartean komunikazio bide nagusia da). Euskara bigarren postuan dago eta galiziar komunitateak Ermuan duen garrantzia dela-eta, biztanle batzuen lehen hizkuntza galegoa da.



**Taula 4 Lehen hizkuntzaren definizioa adinka.**


3.G. ¿Esango al didazu zein den zure lehen hizkuntza ?	GUZTIRA	Adina				
		16-24	25-34	35-49	50-64	65 urte +
	<b>400</b>	<b>73</b>	<b>78</b>	<b>94</b>	<b>85</b>	<b>70</b>
Euskara	%17,30	%12,30	%17,90	%23,40	%14,10	%17,10
Gaztelania	%72,80	%79,50	%76,90	%70,20	%67,10	%71,40
Biak (euskara eta gaztelania)	%3,80	%6,80	%3,80	%3,20	%2,40	%2,90
Galegoa	%6,30	%1,40	*%1,3	%3,20	*%16,5	%8,60

Euskararen atzerakada, lehen hizkuntza moduan, nabarmena da:

- **35 eta 45 urte bitarteko** biztanleriaren artean: %26ak euskara jaso du lehen hizkuntza moduan.
- **25 eta 34 urte bitarteko** biztanleriaren artean: %20ak.
- **16 eta 24 urte bitarteko** biztanleriaren artean: %19ak.

Azken adin talde horretan, **biztanleriaren ia %80ak** gaztelania du **lehen hizkuntzatzat**.

**18. grafikoa Lehen hizkuntza din taldeka.**



Iturria: Inkesta. 2004.


**Euskararen irabaziak eta galerak** kalkulatzeko, inkesta egin diogunaren eta bere gurasoen ama hizkuntza zein den aztertzea beharrezkoa da. Honela, gertatutako galerak eta irabaziak kalkulatu dira. Ermuan **inkesta egindakoen aita gehienek** gaztelania dute ama hizkuntzatzat. Askoz gutxiago dira euskara ama hizkuntzatzat duten aitak eta horietatik distantzia gutxira galegoa ama hizkuntzatzat dutenak daude. Inkesta egindakoen **amen kasuan**, gehienek gaztelania dute ama hizkuntzatzat, nahiz eta euskara ama hizkuntzatzat duten amen ehunekoaitena



baino handiagoa izan. Galegoa ama hizkuntzatzat duten amen ehunekoa aitena baino zertxobait txikiagoa da.

**19. grafikoa: Inkesta egindakoen gurasoen lehen hizkuntza.**


**Oinarria : 400 elkarrizketatu**



Bi aldagaiak gurutzatzerakoan, elkarrizketatuaren lehen hizkuntza eta bere guraso-ena, 20. grafikoa adierazten moduan, **erdaldun elebakarren %30,2aren gurasoetako baten ama hizkuntza euskara izan dela ikusi dezakegu.** %18,5aren kasuan euren amek euskara izan zuten ama hizkuntzatzat, %8,3aren kasuan euren aitek euskara izan zuten ama hizkuntzatzat eta %3,4aren kasuan guraso biek euskara izan zuten ama hizkuntzatzat. Zalantzarik gabe, euskara ez dakiteneen ehuneko handia da hori, nahiz eta bere gurasoek (bietako batek edo biek) euskara izan ama hizkuntzatzat.

Hala ere, erantzunen egiazkotasuna frogatzea zaila dela adierazi behar dugu. Izan ere, kasu bakar batean ere ez da gurasoek euskara dakiten edo ez egiaztatzen. Dena den, datu horiek frogatuz gero **euskararen transmisioan gertatutako galera benetan esanguratsua litzateke.**


**20. grafikoa: Inkesta egindakoen gurasoen ama hizkuntza**





**Euskara transmititzeko moduari** dagokionez, gaztelania ama hizkuntzatzat duten elebidunen artean, %77ak irakaskuntza arautuaren bidez ikasi du euskara. Badirudi, irakaskuntza arautua dela elebitasun maila errealak lortzeko biderik garrantzitsuena.

**21. grafikoa: Euskara ikasteko bidea elebidun aktiboentzako, gaztelania izanik lehen hizkuntza bakarra**  
**Oinarria: 35 elkarrizketatu**





### 4.3 Euskararen erabilera

Atal honetan, elkarrizketatuei alorretako bakoitzean batez ere euskaraz, euskaraz eta gaztelaniaz berdin edo batez ere gaztelaniaz hitz egiten duten galdetu diegu. Bistan denez, elkarrizketatu guztiak euskaraz dakite.

Orokorrean, euskararen erabilera ehunekoak nahiko baxuak dira. Euskaldun elebarraren kasuan ere, euskararen erabilera maximoaren ehunekoa ez da %70era iristen eta ehuneko hori txikiagotu egiten da hurbileko ingurunean: merkatariak, lagunak eta lankideak.


Elebidunek ere gutxi erabiltzen dute euskara. Kasurik hoberenean, erabilera ez da %50era iristen. Orokorrean, Ermuan euskara batez ere, gurasoekin, anai-arrebekin eta arraroa badirudi ere "bankuarekin" erabiltzen da. Azken emaitza honen arrazoi-etako bat sukurtsal batzuen jarrera izan daiteke.

Zentzu honetan, bankuak kalitate prozesuetan murgilduta daude eta horietan, irudia eta zerbitzua euskalduntzeak garrantzia du. Ermuan, gaztelania asko erabiltzen den herri batean, irudia euskalduntzeak herritarrengan eta hizkuntzaren erabileran izan duen eragina nabarmentzekoak dira. Esperientzia hori oso interesgarria da eta beste zerbitzu batzuetara hedatzeko modukoa izan daiteke.




Azkenik, hizkuntzaren erabilera orokorrari dagokionez, euskararen ezagutza kontuan hartu gabe, alor edo eremu bakoitzean nagusiki erabilitako hizkuntza honakoa dela nabarmendu behar dugu:

**22. grafikoa: Alor bakoitzean gehien erabiltzen den hizkuntza**  
**Oinarria: 400 elkarrizketatu**





**23. grafikoa: Batez ere euskaraz hitz egiten den alorrak**  
**Oinarria: 186 elkarrizketatu, euskaldun elebakarrak, elebidunak eta elebidun pasiboak**






Ermuan, bizitzaren edozein alorretan gaztelania nagusitzen dela nabarmentzen da. Ermuarrek, komunikazio bitarteko gisa, gaztelania erabiltzen duten alorren artean lehen eta bigarren postuan administrazio publikoak agertzen dira: **Udala eta osasun zerbitzuak**. Eremu horietan, kasuen %80 batean nagusiki erabilitako hizkuntza gaztelania da.

Euskararen nahiz gaztelaniaren erabilerrari dagokionez, familiaren eremuan komunikaziorako bitarteko gisa hizkuntza bakarra erabiltzeko ohitura dagoela adierazi behar da eta oso gutxi erabiltzen dituzte bi hizkuntzak batera. Bi hizkuntzak batera, batez ere, merkatariekin, lagunekin eta familiako beste batzuekin erabiltzen dira.



**24. grafikoa: Euskaraz nahiz gaztelaniaz hitz egiten den alorrak**  
**Oinarria: 186 elkarrizketatu, euskaldun elebakarrak, elebidunak eta elebidun pasiboak.**



Azkenik, gaztelaniaren erabilera nagusiari dagokionez, hizkuntza honen nagusitasuna nabarmena dela adierazi behar da Ermuan. **Euskara jakin arren** batez ere, gaztelania erabiltzen dutenen ehunekoa askoz ere handiagoa da adierazi den kasuetan. Elebidunen %50ak ohikotasunez erabiltzen du gaztelania familian, osasun zerbitzuan edo udalean.



**25. grafikoa: Batez ere gaztelaniaz hitz egiten diren alorrak**  
**Oinarria: 186 elkarrizketatu, euskaldun elebakarrak, elebidunak eta elebidun pasiboak.**






## 4.4 Jarrera eta iritziak euskararen sustapenarekiko

Euskararen sustapenarekiko Ermuko biztanleen jarrera oso positiboa da. Inkesta egindakoen artean %90ak aldeko edo oso aldeko jarrera du. Gainerako %10ak jarrera neutroa edo kontrakoa du. Inkesta mota hauetan erantzun hauek erlatibizatu behar badira ere, EAEko datuekin konparatuz oso positiboak dira. Izan ere, EAEko %16ak aurkako jarrera du.

**26. grafikoa: Euskararen sustapenaren gaineko jarrera eta iritziak**  
**Oinarria: 400 elkarrizketatu**



Euskararen sustapenarekiko inkesta egindakoek agertzen duten jarrera hizkuntza-ren ezagutzarekin lotuta dago. Honela, ezagutza gero eta txikiagoa den heinean sustapenarekiko kontrako jarrerak eta jarrera neutroak gero eta garrantzi handiagoa hartzen dute.




## 4.5 Lehentasunezko eremuak euskararen sustapenean elkarrizketatuen arabera

Elkarrizketatuen arabera irakaskuntzak, sustatu beharreko eremuen artean, lehentasuna du. Irakaskuntza kontzeptuak bere baitan ikastolentzako, eskola publikoentzako, euskaltegientzako dirulaguntzak... kontuan hartzen ditu. Adierazgarria da elkarrizketatuek erabilera mailarik handienetakoa duen esparrua adieraztea, nahiz eta erabilera hau, batez ere, gela barruetara mugatu.

Bigarren lekuan, familia agertzen da, euskara bertatik sustatu daitekeen gune moduan. Jarraian, oso gertu, aisiarekin zerikusia duten jarduerak ditugu. Azken kasu horri dagokionez, badirudi, elkarrizketatuak haur eta gazteen jardueretaz ari direla, euskara ikasgeletatik atera asmoz eta jolas jarduerekin lotuz, kalean bultzada garrantzitsu eta normalizatua eman nahian bezala.


**27. grafikoa: Euskararen sustapenari dagokionean jarrera eta iritziak**  
**Oinarria: 400 elkarrizketatu**



Euskararen ezagutzaren arabera lehentasunezko esparruen artean ezberdintasunak antzematen dira. Irakaskuntza, ezagutza maila guztietarako, lehentasun handiena duen eremua da. Euskara dakitenentzako lan munduak eta administrazioak garrantzi handiagoa dute eta euskararen ezagutza baxuagoa dutenentzako garrantzitsua goak dira familia, aisia, astialdia eta kultura.



**28. grafikoa: Lehenetsuzko eremuak, euskararen ezagutza mailaren arabera**  
**Oinarria: 400 elkarrizketatu**






## 4.6 Euskara sustatzeko udalak egindako ahaleginaren balorazio orokorra.

Elkarrizketatuek ez dute oso modu positiboan baloratzen Udalak euskara sustatzeko egindako ahaleginak: ez direlako egin edo egin arren, herritarrek "ikusteko" modukoak izan ez direlako.


**29. grafikoa: Ermuko Udalaren balorazio orokorra (0tik 10 puntura)**  
**Oinarria: 400 elkarrizketatu**



Gainera, euskararen ezagutza maila gero eta handiagoa, orduan eta udalarekiko balorazio kaxkarragoa egiten da.

Soilik, erdaldun elebarraren kolektiboak ematen dizkio bost puntu baino gehiago udalaren ahaleginari.


**30. grafikoa: Ermuko udalaren balorazio orokorra euskararen ezagutzaren arabera (0tik 10 puntura)**  
**Oinarria: 400 elkarrizketatu**



Balorazioa udalak egiten dituen jardura zehatzen arabera egiten bada, hobekien baloratutakoak honakoak dira: aisialdiko jarduerak, udalaren hizkuntza paisaia eta euskararen erabilera kultur jardueretan. Beraz, balorazio orokorra oso positiboa ez bazen ere, balorazio zehatzagoak alderdi positiboagoak erakusten ditu eta atal guztietan gainditzen da.



**31. grafikoa: Udalaren balorazio orokorra jarduera zehatzen garapenean (Otik 5 puntura)**  
**Oinarria: 400 elkarrizketatu**






## 5 EUSKARAREKIKO JARRERA

### 5.1 Euskararen ezagutza hobetzea


Elkarrizketatuen gehiengo zabal batek ez du bere euskararen ezagutza hobetzeko inolako jarduerarik egiten. Soilik, %8,3ak dio bere euskara hobetzeko ahaleginen bat egiten duela. Horietatik %4,5ak bere kabuz ikasten du euskara. "Bere kabuz" kontzeptua oso zabala izan daiteke eta kontzeptu horren bidez ikaskuntza lan zehatz batetik hitz batzuk euskaraz esateko borondateraino adierazi daiteke.

**32. grafikoa: Euskararen hobekuntzarako jardueren garapena**  
**Oinarria: 291 erdal elebakar eta elebidun hartzaileak**



Aldiz, elkarrizketatuen %60ak euskararen ezagutza areagotzeko prest dagoela adierazten du.

**33. grafikoa: Euskararen ezagutzan aurreratzeko borondatea**  
**Oinarria: 291 erdal elebakar eta elebidun hartzaileak**






Euskara ikasteko edota hobetzeko arrazoiei dagokienean, elkarrizketatuen %42ak bertako hizkuntza delako ikasi nahi omen du euskara. %37ak aldiz, euskara ikasiz bere harreman sozialak hobetu nahi dituela dio. Euskara ikasteko arrazoi garrantzitsuenen artean laneko arrazoiak hirugarren lekuan daude.

Euskara ez ikasteko erabiltzen duten arrazoi nagusia berriz, adinarena da. Bigarren arrazoi euskararen berezko zailtasunarena da. Ikasi nahi ez dutenen %20ak arrazoi moduan honakoa aipatzen du: ez dela beharrezkoa.

### 34. grafikoa: Euskara ikasteko edota ez ikasteko arrazoiak





## 5.2 ATAL HONETAKO ONDORIOAK

Ermuko biztanleen artean egindako inkestatik honako alderdi hauek nabarmendu behar dira:

- **Biztanleen euskararen ezagutza maila baxua:**
  - Ermuko erdaldun elebakarren ehunekoa EAEkoaren ia bikoitza da.
  - Bere burua elebiduntzat dutenen artean, gaztelaniaz erraztasun handiagoa dutenak dira gehienak.
  - Ezagutza maila handiagoarekin edo txikiagorekin, baina Ermuko biztanleen ia erdiak neurri batean edo bestean badaki euskaraz.
- **Euskararen transmisioan galera nabarmena.**
  - Elkarrizketatuen hiru laurdenak gaztelania du ama hizkuntzatzat.
  - Euskarak, ama hizkuntza gisa, gero eta presentzia txikiagoa du. 25 eta 45 urte bitarteko biztanleen %26arentzat ama hizkuntza euskara den bitartean, 16 eta 24 urte bitartekoen artean ehuneko hori %19ra jaisten da.
  - Erdaldun elebakarren %30aren gurasoetako batek euskara jaso zuen ama hizkuntza gisa.
- **Irakaskuntza arautuaren eragina** handia da:
  - Ama hizkuntzatzat euskara izan ez dutenen kasuan, euskara ikasteko metodo nagusiena irakaskuntza arautua izan da (kasuen %77an).
- **Euskara oso gutxi erabiltzen da.** Euskaldunek ere gaztelania erabiltzen dute bizitzaren alor ezberdinetan. Euskara, batez ere, familian eta bankuan erabiltzen da. Gaztelania gehien eremu hauetan erabiltzen da: udalean eta osasun etxean, hurrenez hurren.
- Ermuko biztanleek **modu positiboan baloratzen dute euskararen sustapena.** Inkesta egindakoen %90 euskara sustatzearen alde dago. Hala ere, administrazio lokalak zentzu honetan egiten duen lana ez da oso positiboki baloratzen. Batez beste, 10etik 4,8 batez baloratzen da. Beraz, edo sustapen lana areagotu beharko da edo udalak egindako jardueren berri herrita-



rrengana iritsi dadin beste informazio/komunikazio bide batzuk ezarri beharko dira.

- Ermuko biztanleen euskara ezagutza maila txikia dela adierazi bada ere eta herritarrek euskara ikastearen aldeko jarrera badute ere, hainbat arrazoi direla medio, **%91k ez du bere ezagutza hobetzeko inolako jarduerarik egiten.**



## **2. ZATIA**

### **EGOERAREN DIAGNOSIA**

- A).- Euskararen egoeraren diagnostika:  
AMIA Orokorra**
- B).- Sektorekako analisia. AMIA sektoria-  
lak**



## 6 EUSKARAREN EGOERAREN DIAGNOSTIKOA ERMUAN

Egoeraren diagnostikoa egin ahal izateko alderdi kuantitatiboak zein kualitatiboak baloratu beharra dago. Aurreko ataletan informazio kuantitatiboa bildu da, errol-datik nahiz biztanleei egindako inkestatik lortutakoa. Atal honetan, berriz, ekarpen horiek kualitatiboki baloratuko dira. Hau da, azterketari ikuspegi subjektiboagoa emango zaio, eta Ermuko eragile sozial desberdinen ikuspuntuak ere bilduko dira.

Horretarako, hainbat multzo tematiko eratu dira, eta horietako bakoitzean gaur egun euskararen egoera zein den aztertu da. Hausnarketaren ondorio gisa, arlo bakoitzarentzat AMIA matrize bat osatu da. Alegia, Ermuan euskara normalizatu ahal izateko Ahuleziak, Mehatxuak, Indarguneak eta Aukerak identifikatu dira.

Indarguneak eta ahuleziak sektorearen barneko alderdiak dira, euskararen normalizazioan eragin positiboa edo negatiboa dutenak. Halaber, aukerak eta mehatxuak ere alderdi positiboak edo negatiboak dira, baina sektoretik kanpokoak dira. Hala eta guztiz ere, azken horiek ere eragiten dute sektore horretan euskara normalizatzeari dagokionez.

Zein arlo aztertu behar diren zehazteko, Ermuan euskararen normalizazioan eragina duten aldagaiak identifikatu dira. Identifikatutako aldagaiak elkartu eta, ondorioz, honako talde hauek konfiguratu dira:

- **Administrazioa:** Toki Administrazioa eta Osakidetza.
- **Alfabetatzea/euskalduntzea:** udal euskaltegiak eta AEK-k parte hartu dute.
- **Merkataritza eta ostalaritza:** sektore tertziarioko establezimenduek eta dendarien elkarteek parte hartu dute.
- **Kultura eta aisia:** aisia, kultura eta kirolen arloak landu dira, eta etxe erregionalek, kirol taldeek eta kultur kolektiboek parte hartu dute.
- **Hezkuntza:** Ermuko hezkuntza zentro guztiei deitu zaie.

Talde bakoitzean lortutako emaitzetan oinarrituta, AMIA matrize orokor bat landu da, Ermuan oro har euskarak duen egoera sintetizatzen duena. Bertan ageri diren alderdiak Batzorde Eragile edo Betearazleak lehenetsitakoak dira. Hurrengo orrietan, AMIA Orokorrarekin batera, sektorekako AMIAk ere ematen dira.



## 6.1 AMIA MATRIZE OROKORRA

Ermuan euskarak duen egoerari gehien eragiten dion alderdietako bat biztanle gehienek **hizkuntza ez ezagutzea** da. Datuek erakusten dutenez, Ermuan gaztelaniazko hiztunen ehunekoa EAEko batez bestekoa halako bi da ia-ia. Errealitate horrek, jakina, bizitza sozialeko arlo guztietan du eragina: zerbitzuak euskaraz hartzeko eskaria txikiagoa da, hizkuntza erabiltzeko aukerak urriagoak dira eta abar. Beraz, hartu beharreko erabaki asko baldintzatzen ditu eta, ondorioz, landu beharreko helburu nagusietako bat hizkuntzaren ezagutza handitzea izango da.

Haatik, ezjakintasuna ez da euskararen normalizaziorako oztopo bakarra. **Hizkuntzaren erabilerari** dagokionez ere, aipatu behar da hori ez dela espero zitekeen bezain altua. Euskal hiztunen artean ere erabilera oso urria da. Gazteenek, euskaraz badakiten arren, batez ere ikasgeletan egiten dute, baina hortik kanpo erabilera dezente jaisten da. Aipatzen diren arrazoen artean euskarak duen **prestigio eskasa** da. Euskarak gara batean zuen "glamour"-a, prestigioa galdu egin duela esaten da. Hala ere, badaude beste alderdi batzuk erabilera urri horretan eragiten dutenak, hala nola **Ermuko hizkuntz paisaia**, guztiz gaztelaniaz baitago. Denda eta establezimendu komertzial, taberna eta abarretako kartelak gaztelania hutsean ageri dira eta, ondorioz, biztanleei ez zaie euskaraz egiteko inolako sustagarririk eskaintzen. Jakinik ere hori ez dela hiritar batek hizkuntza bat erabiltzeko arrazoi bakarra, kontuan hartu behar da horiek euskaratzea oso erraz ezar litekeen ekintza dela.

Horrez gain, lan talde guztietan behin eta berriro aipatzen denez, **Toki Administrazioaren inplikazioa ez da behar bestekoa euskara sustatzeari dagokionez**. Lan taldeetan egindako zehaztapenak alde batera utzita, inkesta bertan jada Udalez egiten den balorazioa oso negatiboa da. **Estamentu politikoaren jarrera**, hizkuntza ez ezagutzea, euskara erabiltzeko borondate falta, ekitaldi publiko gehienetan gaztelania erabiltzea... horiek guztiek eragin negatiboa dute biztanleengan. Hiritarrek ez dute antzematen toki administrazioak hizkuntzari behar besteko garrantzirik ematen dionik.

Toki Administrazioak orain arte euskarari eskaini dion tratamenduari dagokionez, aipatu behar da **Hizkuntz Normalizaziorako Plan Orokorrik ez izateak** ere izan duela eraginik. Ekimen puntualak ezarri izan dira, baina helmuga garbirik gabe eta arlo horri buruz helburu estrategiko zehatzak definitu gabe. Plan hau oinarri sendoa izango da udalerririk etorkizunean egoera hobea izan dezan eta, horretarako, lagungarri gertatuko da lortu beharreko helburu estrategikoak eta garatu beharreko ildo estrategikoak definitzeko garaian.



**Euskararen aurreko jarreraren identifikazio politikoa**, EAE osoan oso zabal-duta egonik ere, Ermuan are nabarmenago agertzen da. Bai erabiltzeak, bai ez erabiltzeak, hainbat konnotazio hartzen dute, eta horrek zuzenean egiten dio kalte hizkuntzari. Konnotazio horiek gainditzea eta identifikazio jakin horri aurre egitea zeregin zaila da, baina era berean funtsezkoa izango da ezein normalizazio planek arrakasta izango badu.

Ermuko arlo sozial desberdinetan aipatu izan da Toki Administrazioak ez duela **hizkuntz normalizazioko prozesua gidatzeko behar beste baliabiderik**. Egia izanik ere baliabideez hitz egin aurretik Plan bat definituta egotea behar dela, ez da ahaztu behar normalizazio plan honek baliabideak beharko dituela ezarri ahal izateko. Baliabide ekonomikoak, materialak zein pertsonalak. Hizkuntz normalizaziorako plan batek beste eragile sozial batzuen parte hartzea behar du, baina udal estamentuetan gidatu eta kudeatu behar da. Ermua bezalako udalerrri batean, 16.379 biztanle dituela, eta aipatutako ezaugarri soziolinguistikoak kontuan hartuta, euskararen sustapena bultzatzearen borondatea, jarduera honetara zuzenduko den pertsona bat esleitzetik igarotzen da.

Arlo desberdinetan baloratzen da **euskarazko zerbitzuen eskaera minimoa** dela. Bai udaletxean, bai establezimendu komertzialetan eta tabernetan eskaera gehienak gaztelaniaz egiten dira. Ez dago gizarte presio nabarmenik. Horren ondorioz, ez administrazioak, ezta gizarte eragile desberdinek, ez diote lehentasunik eman irudia euskalduntzeari, kartelei, harrera euskaraz egiteari eta abar.

Aurreko ataletan esan da irakaskuntza izan dela Ermuan euskararen ezagutza hantitzeko klabeetako bat. Euskara ezagutzen duten baina ama hizkuntzatzat ez duten pertsonen %77k ondoren ikasi dute, hezkuntza arautuaren bidez. Dena dela ere, estatistikek diotenez, eskolako azken bi ikasturteetan **D ereduko matrikulen joera**, hau da, euskara hutsean ematen den irakaskuntza ereduarena gelditu egin da. Alderdi horri oso garrantzi handia ematen zaio, izan ere, atzeranzko joerak jarraituz gero, azken bi hamarkadetan lortutako aurrerapenak arriskuan jar daitezke.

Gai positiboei dagokienez, plan hau martxan jartzeaz gainera, **biztanleen aldeko jarrera** da aipagarria. Aztertu diren arlo guztietan ermuarren jarrera positiboa baloratu da. Inkestak berak erakusten du ia biztanleen ia %90 euskara sustatzearen aldekoa edo oso aldekoa dela. Jarrera positibo hori ezinbestekoa da hizkuntz normalizaziorako plana ezartzeko orduan, izan ere, oinarrizko baldintzetako bat biztanleek plana onartzea da.

Ermua, historikoki, oso kultur dinamika bizia garatu duen herria izan da, eta **kultur elkarte ugari** dago bertan. Kontuan hartuta hizkuntza normalizaziorako plan bat ezartzeak, halabeharrez, eragile sozial desberdinek parte hartzea behar duela, el-



karte eta kultur aberastasun horrek balio handia izango du. Gainera, badira Euskal Birusa edota AEK bezalako elkarteak euskararen alorrean lanean eta horiek esperientzia zabala dute.

Beste alderdi adierazgarri bat da, arreta berezia merezi duena, **zerbitzuak eta produktuak gero eta gehiago euskaraz eskatuko direla aurreikusita** dagoela (administrazioan, dendetan, ostalaritzan, hezkuntzan, kultur jardueretan...). 1981 eta 2001 artean asko hazi da euskaraz dakiten pertsonen kopurua (euskaldunak 512tik %24ra igo dira, eta ia euskaldunak %11tik %25era). Egoera horrek pentsarazten du, edo aurreikustekoa da, eskaera gehiago egingo dela euskaraz.

Alderdi positiboen artean aipatu behar dira ere **Udalak aurrera eramaten dituen hainbat ekimen**. Negatiboen artean Tokiko Administrazioaren inplikazioa nahikoa ez dela izan aipatu bada ere, badira ekimen batzuk, uda eta neguko udalekuak edo euskalduntze zentroetan matrikulazioaren %50eko diru laguntza kasu, arrakasta nabarmena izan dutenak. Positiboki baloratu diren ekimenak izan dira eta biztanleak harrera ona egin die. Beraz, aipagarriak dira atal honetan.

Kanpo faktore hainbat ere aipatu behar dira Ermuan euskara normalizatzeko lagungarri gerta daitezkeelako. Instituzioen eremuan **gero eta garrantzi handiagoa ematen** zaio, eta horrek eragin zuzena du Toki Administrazioan. Era berean, lan arloan ere baloratzen da euskaraz jakitea eta, ondorioz, ikasteko osagai praktikoa bat bada. Azken finean, euskara gero eta gehiago baloratzen da, eta gero eta beharrezkoagotzat jotzen da.

Aipatutako alderdi horiekin batera, ondoren aurkezten den AMIA matrizean beste gai batzuk ere aipatzen dira, euskarak udalerrian duen egoera laburbiltzen dutenak.



AHULEZIAK	MEHATXUAK
<ul style="list-style-type: none"><li>▪ Udalerriaren hizkuntza egoera. Biztanleriaren zati handi batek ez du hizkuntza ezagutzen.</li><li>▪ Euskararen prestigio falta.</li><li>▪ Hizkuntza Normalizazio Planik ez dago. Administrazio lokalaren inplikazioa eskasa euskararen sustapenean.</li><li>▪ Ermuko hizkuntza paisaia gaztelaniaz da.</li><li>▪ Euskararekiko jarrera politikoki identifikatzen da.</li><li>▪ Hizkuntza normalizazioa gidatzeko baliabideak falta dira Udaleko euskara zerbitzuan.</li><li>▪ Estamentu politikoen jarrera: ez dakite euskaraz eta euskara erabiltzeko borondatea falta da estamentu politikoetan.</li><li>▪ Ekitaldi publiko eta ofizial gehienak gaztelaniaz egiten dira.</li><li>▪ Euskaldunen artean euskara erabiltzeko ohitura falta da, baita gazteenen artean ere.</li><li>▪ Udalerrian euskara ohikotasunez erabiltzeko ohitura falta da. Euskaldunak sakabana-tuta daude.</li><li>▪ Euskarazko zerbitzuen eskaria txikia da: administrazioa, ostalaritza, saltokiak, kultura, etab. Ez dago presio sozial adierazgarririk.</li><li>▪ Haur hezkuntzan D ereduko matrikulazioa gelditu egin da.</li><li>▪ Kultur kolektibo guztien deskoordinazioa euskararen inguruan.</li><li>▪ Herri administrazio mailan egindako hizkuntza planetan ez dira lortu ezarritako helburuak.</li><li>▪ Euskaldun berriek gutxi erabiltzen dute euskara: erraztasun falta, lotsa, etab.</li><li>▪ Euskara Batzordearen jarduera eskasa.</li><li>▪ Merkatari eta ostalarien artean euskararen ezagutza maila txikia da eta alor hori oinarrizkoa da bizitza sozialean.</li><li>▪ Merkatariak euskalduntzeko laguntza falta da: ordutegien malgutasuna, etab.</li><li>▪ Eskola orduz kanpoko jarduerak, batez ere kirolaren alorrekoetan, gaztelaniaz izaten dira.</li><li>▪ Derrigorrezko Irakaskuntzatik aurrera euskarazko eskaintza txikia da: formazio zikloak, lanbide heziketa, etab.</li></ul>	<ul style="list-style-type: none"><li>▪ B eta D ereduen emaitzak ez ziren espero zitezkeenak.</li><li>▪ Kultur eta ikus-entzunezkoen arloko eskaintza handiagoa eta erakargarriagoa gaztelaniaz.</li><li>▪ Irakasle eta ikasleek inposaketa sentsazioa dute.</li><li>▪ Komunikazioa galtzea. Profilak oraintxe lortu dituzten irakasleak.</li></ul>



INDARGUNEAK	AUKERAK
<ul style="list-style-type: none"><li>• Euskara plan hau abian jartzea.</li><li>• Biztanleen aldeko jarrera.</li><li>• Ermuko kultur dinamismoa.</li><li>• Biztanleriak positiboki baloratzen dituen proiektu adierazgarriak: Udalak euskaraz antolatzen dituen udalekuak, Berbalagun proiektua, udalak sustatzen dituen hainbat ekintza kultural, eta abar.</li><li>• Euskarazko zerbitzuen eta produktuen eskaria handitu egingo dela aurreikusten da (administrazioa, hezkuntza, merkataritza, ostalaritza, etab.) biztanle gero eta gehiagok dakielako eta kontzientziarioa gero eta handiagoa delako.</li><li>• Euskarazko espazio erreferentzial eta prestigiozkoak daude: Drogetten Iturria, Euskal Birusa, etab.</li><li>• Euskal Birusa eta AEKren presentzia euskararen alde lanean.</li><li>• Herri administrazioan gero eta langile euskaldun gehiago daude.</li><li>• Merkataritza talde batzuk euskara ikasi eta sustatzeko interesa dute.</li></ul>	<ul style="list-style-type: none"><li>• Euskarak gero eta garrantzi handiagoa du ingurune instituzionalean.</li><li>• Lan munduan euskara jakitea baloratzen da. Ikaskuntzan osagai praktikoa bat dago.</li><li>• Aldeko marko legala.</li><li>• EAE mailan, euskarazko kultur ekoizpenaren hazkunde esanguratsua.</li><li>• Funtzionarioek euskara ikasteko erraztasunak dituzte.</li><li>• Seme-alabei ikasketetan lagundu nahi izateak euskara ikastera bultzatzen ditu asko eta asko.</li></ul>



## 6.2 ADMINISTRAZIOA

Administrazioko lantaldea bereziki Ermuko Udaleko langileek eta Osakidetzako ordezkari batek osatu dute.

Taldean landu diren gai gehienak generikoak dira Ermua udalerrinari dagokionez eta, ondorioz, AMIA matrize orokorrean integratu dira. Hala ere, gai espezifiko batzuk ere azaldu dira, soilik Administrazioari dagozkionak, eta horiei arreta berezia jarriko diegu.

Hizkuntz eskakizunak eta barne estamentu politikoen jarrera, hein batean, oztopo dira hizkuntz normalizazioari begira. Politikari eta zuzendari gehienek ez dute euskaraz ezagutzen, eta kasu batzuetan gaiari buruzko interesik ere ez dute adierazten. Balorazio falta horrek langileen artean desmotibazioa dakarrela uste da, eta, ondorioz, horiek inplikatzeari zailago bihurtzen da.

Gainerako arloetan gertatzen den bezalaxe, barrura begira, Udaleko langileen artean ere gaztelania erabiltzeko joera dago. Errealitate horretan eragina du langile euskaldunen artean gehienak euskaldun berriak izateak. Horietako askok ez dute jario handirik, eta aurretiko ohiturak oso lerrotuta dituzte gaztelaniaren alde. Gai horri buruz aipatu daiteke duela urte batzuk aholkularitza enpresa batek erabilera plan bat egin zuela udaletxerako. Dena den, helburuak ez zirela oso lorgarriak baloratu zen eta inoiz ez da bere ezarpen mailara heldu.

Gainerako administrazioetan bezala, Ermuko Udalean ere euskalduntzeko planak gauzatu izan dira. Gai horri dagokionez, kasu askotan emaitzak onak izan badira ere —langile gehienek eskatutako eskakizuna lortu dute edo derrigorrezko mailaren aurrekoan bertan daude—, langileen artean oso zabaldua dago inposaketa izan delako sententzia. Derrigortasunaren presioak, kasu askotan, ikastearen helburu bakarra maila egiazteatzeko azterketa gainditzea izatea ekarri du.

Azkenik, gai aipagarrien artean nabarmen daiteke udaletxearen irudi orokorrean gaztelania nagusitzen dela. Azken urteetan ahalegina eginda irudia euskalduntze aldera. Hala ere, oraindik ere arlo asko dago hobetzeko: telefonozko harrera, udaletxe barruko hizkuntz paisaia... Oso hedatuta dago udaletxean logikoena gaztelaniaz egitea delako irudipena.

Hurrengo taulan Administrazioaren arloko AMIA matrizea eskaintzen da.



AHULEZIAK	MEHATXUAK
<p><b>1.- Langileek ez dakite.</b></p> <ul style="list-style-type: none"><li>○ Langile guztiek ez dakite euskaraz.</li><li>○ Dakitenean artean erraztasun falta duten euskaldun berri asko dago.</li><li>○ Alfabetatze maila txikia.</li><li>○ Abiapuntuan ezagutza maila oso txikia zen.</li></ul> <p><b>2.- Hizkuntza profila eta barne estamentu politikoaren jarrera.</b></p> <ul style="list-style-type: none"><li>○ Politiko eta zuzendari gehienek ez dakite.</li><li>○ Kasu batzuetan ez da gai honekiko interesik agertzen.</li><li>○ Euskara ez baloratzeak langileak desmotibatzen ditu.</li></ul> <p><b>3.- Euskara erabiltzeko borondate falta estamentu politikoaren aldetik.</b></p> <p><b>4.- Barne mailan, hizkuntza ohitura eralduna da.</b> Hizkuntza ohitura orokorrean.</p> <ul style="list-style-type: none"><li>○ Langile euskaldunen artean gehiengoak euskaldun berria da eta gaztelaniaren aldeko hizkuntza ohiturak aspaldikoak dira eta oso sustraituak daude.</li></ul> <p><b>5.- Tokiko Administrazio mailan egindako euskalduntze planetan definitutako helburuak ez dira bete.</b></p> <ul style="list-style-type: none"><li>○ Inposaketa denaren sententzia nahiko orokorra da.</li><li>○ Nahitaezkotasunaren presioa.</li></ul> <p><b>6.- Ez dago erabilera planik.</b></p> <ul style="list-style-type: none"><li>○ Barne motibazioa ez da lantzen.</li></ul> <p><b>7.- Beste erakunde batzekiko harremanean gaztelania nagusi da.</b></p> <p><b>8.- Udalean tresna gutxi daude.</b></p> <ul style="list-style-type: none"><li>○ Ez dago tresna nahikorik eskuragarri: araudiak, legeak, euskarri ereduak...</li></ul> <p><b>9.- Administrazio oztopoak.</b></p> <ul style="list-style-type: none"><li>○ Lanpostu batzuetan nekez planteatu daitezke ordezkariak euskalduntze prozesuetan daudenei.</li><li>○ Osakidetzaren kasuan, euskaltegiak hiriburuetan zentralizatzen dituzte eta horrek bere gain hartu ezin diren joan-etorriak izatea suposatzen du.</li></ul> <p><b>10.- Udalaren irudi orokorra.</b></p> <ul style="list-style-type: none"><li>○ Udalean gaztelaniaz hitz egitea logikoa denaren sententzia.</li><li>○ Ez dago identifikazio indibidualerako prozesurik ez eta euskararen erabilera sustatuko duten neuririk.</li></ul>	<p><b>1.- Udalerriko hizkuntza egoera. Eskari txikia.</b></p> <ul style="list-style-type: none"><li>○ Biztanleek ez dute euskarazko zerbitzurik eskatzen.</li><li>○ Euskaraz ez dakien biztanle inmigrante asko.</li></ul> <p><b>2.- Ez dago presio sozial nabarmenik.</b></p> <p><b>3.- Euskararekiko jarreraren identifikazio politikoa.</b></p>



INDARGUNEAK	AUKERAK
<p><b>1.- Euskarazko zerbitzuen eskaria handitu denaren aurrikuspena,.</b></p> <ul style="list-style-type: none"><li>○ Gero eta biztanle gehiagok jakingo duelako,</li><li>○ Kontzientziazio handiagoa delako.</li></ul> <p><b>2.- Langileen jarrera.</b></p> <ul style="list-style-type: none"><li>○ Udaleko langileek ikasketa prozesuarekiko borondate eta interes ona agertu dute.</li><li>○ Kasu batzuetan, benetako bokazioa dago.</li><li>○ Udalaren barnean ez dago giro erasokorrik, kontrakoa baizik.</li></ul> <p><b>3.- Gero eta langile euskaldun gehiago dago.</b></p> <p><b>4.- Diru baliabide garrantzitsuak erabiltzen dira.</b></p> <p><b>5.- Informazio eta kartel guztiak jadanik bi hizkuntzatan daude gaur egun.</b></p>	<p><b>1.- Kanpo egoera euskararen aldekoa da.</b></p> <p><b>2.- Araudia. Lege markoa aldekoa.</b></p> <ul style="list-style-type: none"><li>○ Euskaldunak euskaraz arreta jasotzeko eskubidea onartzen du.</li><li>○ Derrigortasun maila batzuk ezartzea ahalbidetzen du.</li></ul> <p><b>3.- Funtzionarioen ikasketa prozesuan erraztasunak daude.</b></p> <ul style="list-style-type: none"><li>○ Lan ordutegian bi orduko liberazioak.</li><li>○ Funtzionarioentzat prozesuak ez du kosturik.</li></ul> <p><b>4.- Euskarak gero eta garrantzi handiagoa du ingurune instituzionalean.</b></p> <p><b>5.- Administrazioak kontuan hartzen du hizkuntza gaitasun eza.</b></p>



## 6.3 ALFABETATZEA ETA EUSKALDUNTZEA

Dagoeneko azpimarratu diren alderdiez gain, beste hainbat gai aipatzea ere merezi du:

Matrikulen kostua izan da eztabaidan atera diren gaietako bat. Kolektibo desberdinek prezioak gehiegizkoak direla baloratu dute. Beste hizkuntza batzuk ikastea euskara ikastea baino garestiagoa dela ohartuta ere, hizkuntza hau sustatzeko hainbat pizgarri behar dira, besteak beste, ekonomikoak. Gaur egun, Ermuko udalak matrikulen %50 finantzatzen du. Benetan kantitate esanguratsua da hori. Dena den, ez dirudi udalaren esfortzu garrantzitsu honek isla izan duenik biztanlegoan alderdi ekonomiko hau behin baino gehiagotan aipatu baita eta talde bat baino gehiagoren aldetik. Ekintza planaren eremuan, beharrezkoa izango da beraz alderdi hau jorratzea eta arazoari irtenbide adostuak ematea.

Euskara Batzordeak garatu duen lanari buruz baloratu da ez dela izan behar lukeen bezain eraginkorra, izan ere, ez dago taldea koordinatuko duen euskara teknikaririk. Beste batzorde batzuetan, esate baterako Kulturakoan, pentsaezina litzateke taldea koordinatuko lukeen kultur teknikaririk gabe aritzea.

Alderdi positiboen artean, berriro ere, plan hau abiaraztea aipatzen da, baita erreferentziatzko eta prestigioko hainbat espazio izatea ere, hala nola Drogeten Iturri aldizkaria, Euskal Birusa eta proiektu interesgarriak, "Berba-lagun" kasu, oso emaitza positiboak eman baitituzte.

Hurrengo orrialdean gai hau eta beste batzuk eskaintzen dira, bai positiboak, bai negatiboak, euskarak sektorean duen egoerari eragiten diotenak.



AHULEZIAK	MEHATXUAK
<ul style="list-style-type: none"><li>• Matrikulazioen kostea. Gai honen inguruko azterketa serioa falta da.</li><li>• Motibazio falta helburua azterketa bat ez den kasuetan.</li><li>• Euskara Batzordea ez da eraginkorra.</li><li>• Miguel Angel Blancoren hilketaren ondorengo gertaerek eragin negatiboa izan dute euskararen hedapen eta ikaskuntza prozesuetan.</li></ul>	<ul style="list-style-type: none"><li>• Euskararen prestigio falta.</li><li>• Biztanleriaren zati batentzat euskara zerbait arrotza da.</li><li>• Ez dago euskararekiko Udalaren jarrera garbi bat.</li><li>• Ez du alor hau landu.</li><li>• Euskara eta politikaren arteko identifikazioa dago.</li><li>• Udalerrian euskaren ohiko erabilerarako zailtasunak.</li><li>• B eta D ereduaren emaitzak ez dira espero zitezkeenak.</li><li>• Haurrek ez dute euskara erabiltzeko ohiturarik.</li><li>• Proiektu orokor baten gabezia.</li></ul>
INDARGUNEAK	AUKERAK
<ul style="list-style-type: none"><li>• Euskara plan hau abian jartzea.</li><li>• Tokiko Administrazioak matrikulen %50 finantziatzen dute edo zen zentrotan matrikulatzen direla ere.</li><li>• Euskalduntze prozesuetan parte hartu duten pertsonen jarrera aldekoa da.</li><li>• Euskaltegietatik igaro direnek hasierako aurreiritziak galtzen dituzte eta beste errealitate bat ezagutzen dute.</li><li>• Euskal Birusaren prestigioa, baita erdaldunen artean ere.</li><li>• Euskarazko espazio erreferentzial eta prestigiozkoak daude: Drogeten Itturria aldizkaria eta Euskal Birusa.</li><li>• Euskararen alde lan egiten duten taldeak daude.</li><li>• Berba Lagun proiektua interes handikoa da.</li></ul>	<ul style="list-style-type: none"><li>• ikaskuntzan osagai praktikoa bat dago. Ikasteak onurak ekartzen ditu.</li><li>• Seme-alabei ikasketa eredu euskaldunetan lagundu nahiak, euskara ikasteko interesa pizten du guraso askorengan.</li></ul>



## 6.4 MERKATARITZA ETA OSTALARITZA

Sektore honetan hizkuntza normalizatzeko zailtasun handienetakoa gremioak duen euskara maila baxua da eta, ondorioz, dendetan euskara oso gutxi erabiltzea. Batzuetan publikoarekin harremanak dituzten pertsonak ez dakitelako gertatzen da hori, baina beste batzuetan Ermuan bizitza soziala gaztelaniaz egiteko ohitura da-goelako. Gai horri buruz adierazi behar da errotulu gehienak gaztelaniaz daudela.

Sektore hau udalerraren oinarri soziala bada ere, eta ondorioz hizkuntza normalizazioaren traktore izan badaiteke ere, gaur egun Ermuan sektoreak duen sentsibilizazioa/inplikazioa minimoa da.

Ikaskuntzari dagokionez, sektorearen ezaugarri berezien ondorioz agertzen diren zailtasunak aipatu dira, batez ere ordutegiari dagozkienak. Hala eta guztiz ere, garbi geratu da batzuetan sektorearentzako ikastaro bereziak antolatu izan direla eta ez dela gutxienez behar zen ikasle kopurua biltzea lortu. Horrenbestez, sektorearen sentsibilizazioa eta inplikazioa funtsezkoa izango da euskaldunduko bada.

Euskara ikasteko eta normalizatzeko faktore funtsezkoetako bat da merkataritzako edo ostalaritzako jarduerak ez duela nahitaez oso euskara maila altua exijitzen, eta, beraz, hizkuntza honetan gutxieneko atentzioa eman ahal izateko trebetasuna erraz samar lor daitekeela.

Ermuan gero eta gazte gehiagok euskaraz jakiteak eskaera nabarmen handituko duela aurreikusten da, eta egoera hori aukera bihurtuko da, sektorean euskara bultzatzeko pizgarri handia izan daitekeelako.

Hurrengo taulan sektorean euskararen normalizazioan eragina duten alderdi horiek eta beste batzuk ageri dira.



<b>AHULEZIAK</b>	<b>MEHATXUAK</b>
<ul style="list-style-type: none"><li>• Euskararen ezagutza maila txikia gremioan.</li><li>• Euskaldun berriek gutxi erabiltzen dute euskara: lotsa, erraztasun gutxi, etab. Kolektibo horiek euskararen murgiltzeko laguntza gutxi.</li><li>• Eskari txikia bezeroaren aldetik.</li><li>• Gremioaren inplikazio/sentsibilizazio eskasa.</li><li>• Sustapen kanpaina indartsu bat falta da.</li><li>• Euskara ikasteko laguntza falta da: ordutegi malguak, kurtso zehatzak, neurrira egindako plangintzak, etab.</li><li>• Errotulu gehienak gaztelaniaz daude.</li><li>• Ikasteko zailtasunak sektorearen ezaugarri zehatzak direla-eta.</li><li>• Sektorerako euskararen normalizazio plangintza baten gabezia.</li></ul>	<ul style="list-style-type: none"><li>• Biztanle gehienek ez dakite euskaraz.</li><li>• Sektore honetan euskara normalizatzeko Udalaren apustu garbia falta da.</li><li>• Politika eta euskara identifikatzen dira.</li><li>• Euskararen normalizazioan lidergoa izango duen figura baten gabezia.</li></ul>
<b>INDARGUNEAK</b>	<b>AUKERAK</b>
<ul style="list-style-type: none"><li>• Sektorearen aldeko jarrera.</li><li>• Kolektibo batzuk euskara sustatu eta ikasteko interesa dute.</li><li>• Merkataritza eta ostalaritza sektorea bizitza sozialaren oinarria da, Hizkuntza normalizazioaren eragileak izan daitezke.</li><li>• Zerbitzua euskaraz emateak balio erantsia ematen dio bezeroari, zerbitzuari.</li><li>• Terminologiaren ikuspegitik beste eremu batzuk baino zailtasun gutxiago ditu.</li></ul>	<ul style="list-style-type: none"><li>• Gazteen ezagutza maila handiagoa.</li><li>• Euskarazko eskaria gero eta handiagoa izango dela suposatzen da.</li><li>• Euskara Plan hau abian jartzea.</li></ul>



## 6.5 KULTURA ETA AISIA

Arlo honetan aipatzen diren oztopoen artean biztanle gehienek hizkuntza ez jakitea aurki dezakegu, eta arrazoi horregatik ekitaldi gehienak gaztelaniaz egitea. Era berean, euskarazko kultur ekoizpenak kontratatzeko zailtasunak daudela ere aipatu da, aukera gutxi dagoelakoan. Dena dela ere, Erkidegoaren mailan, hazkunde nabarmena gertatu da euskarazko kultur eskaintzari dagokionez, eta goranzko joera horrek eutsi egingo diola aurreikusten da; ondorioz, eskaintza zabalagoa izateko aukerak ere handitu egingo dira.

Negatiboki baloratu da ekitaldi ofizial gehienak gaztelaniaz gauzatzen direla. Gai horri dagokionez, iritzia da toki administrazioak berak euskara sustatu beharko lukeela, eta agintari eragile nagusia izan beharko lukeela, batez ere gizartean proiektzioa duten jardueretan. Badira hainbat ekitaldi kultural Udaleko Euskara Zerbitzutik antolatzen direnak (uda eta neguko udalekuak, San Martin azoka, Olentzero, eta abar), euskararen erabilera oso altua dutenak. Ekimen hauek, noski, positiboki baloratzen dira. Dena den, hizkuntza normalizazioari dagokionean, euskarazko kultur programa asko indartu beharko litzateke.

Ekitaldien programei, karteiei, oharrei eta abarri buruz, oraindik ere batzuk gaztelania hutsean daudela adierazi da, eta, ondorioz, horiek euskaratzeko ahalegina egin beharko litzateke.

Alderdi positiboen artean kultur elkarte ugari egotea aipatu bada ere, euskarari dagokionez deskoordinazioa dagoela adierazi da. Euskara batzordea biltoki eta koordinatzeko gune interesgarria izan daitekeela baloratu da, baina horretarako koordinatzaile lanak egingo lituzkeen lidergoa beharrezkoa litzateke, gaur egun egiten diren baino bilera gehiago deituko lituzkeena.

Hurrengo taulan sektorean euskarak duen egoerari buruzko alderdi horiek eta beste batzuk ageri dira.



AHULEZIAK	MEHATXUAK
<ul style="list-style-type: none"><li>• Ekitaldi gehienak gaztelaniaz egiten dira.</li><li>• Euskarazko ekoizpen kulturala kontratatzeko zailtasuna.</li><li>• Programak, kartelak, oharrak gehienbat gaztelaniaz idazten dira.</li><li>• Ekitaldi publiko gehienak gaztelaniaz egiten dira.</li><li>• Kultur kolektibo guztien deskoordinazioa euskararen inguruan.</li><li>• Hizkuntza normalizazio prozesua gidatzeko baliabideak falta dira udaleko euskara zerbitzuan.</li><li>• Elkartek ez dute euskara behar adina prestigiatzen.</li><li>• Hainbat elkartetan euskarazko baliabideak falta dira, batez ere, kirol elkartetan.</li></ul>	<ul style="list-style-type: none"><li>• Biztanle gehienek ez dakite euskaraz.</li><li>• Ermuko ingurune soziala ez da euskararen erabilera-erentzako mesedegarria: tabernetan, dendetan, koadriletan gaztelania nagusi da.</li><li>• Euskal hiztunak sakabanatuta daude. Euskara erabiltzeko aukerak falta dira.</li><li>• Euskaldun berriek gutxi erabiltzen dute euskara: lotsa, erraztasun gutxi, etab. Kolektibo horiek euskararen murgiltzeko laguntza gutxi.</li><li>• Ermuaren kanpo irudia: herri ez euskalduna bezala ikusten da.</li></ul>
INDARGUNEAK	AUKERAK
<ul style="list-style-type: none"><li>• Euskara guztiona denaren inguruan adostasun handia dago.</li><li>• Ez dago euskararekiko gaitzespenik. Biztanleen jarrera positiboa.</li><li>• Kulturalki oso udalerrri aktiboa da. Jarduera programa oso handia eta asoziazionismo maila handia.</li><li>• Euskararekin konprometituta dauden kolektibo batzuk badaude.</li><li>• EAE mailan, euskarazko kultur ekoizpena modu esanguratsuan hazi da.</li><li>• Euskarazko kultur produktuen eskaria hazi egingo dela aurreikusten da.</li></ul>	<ul style="list-style-type: none"><li>• Gazteen ehuneko handia da Ermuan. EAEko udalerrri gazteenetakoa da.</li><li>• Ezagutzan hazkunde esanguratsua. Gazte gehienek badakite euskaraz eta alfabetatuak dira.</li></ul>



## 6.6 HEZKUNTZA

Ermuan dago eskualdean irakaskuntzako A eredu eskaintzen duen ikastetxe bakarra. Ondorioz, hizkuntz eredu horretan matrikulatu nahi duten pertsonen nahitaez Ermura etorri behar dute. Errealitate hori dela eta, hezkuntzako estatistiketatik lortutako informazioan Ermuko biztanleak soilik ez azaltzea dakar.

Irakaskuntza gaztelania hutsez ematen duen A ereduko matrikulazioan hazkunde txiki bat gertatu da, euskara hutsean ematen den ereduan gelditu egin da eta, al-diz, ele bietan eskaintzen duten ereduetan nabarmendu da hazkundera. Ermuari dagokionez, hainbat arrazoi tarteko ikasgelatik kanpo euskara erabiltzea zaila den herria izanik, esan daiteke D eredu dela euskara ikastea bermatzen duen eredu bakarra. Geldiune horrek, beraz, arriskuan jar ditzake azken urteetan euskara ikas-teari dagokionez izandako hazkunde tasa handiak, ikaskuntza hori batez ere irakaskuntza arautuan oinarritu baita. Guraso askok zailtasunak dituzte ikasketetan beren seme-alabei laguntzeko, eta egoera horrek ere baldintzatu egiten du matrikulazioa.

Ikastetxeen kezka nagusietakoa da ikasgelatik kanpo euskara oso-oso gutxi erabiltzen dela. Euskara hizkuntza akademikotzat hartzen da, eta eskolako patioetan gaztelania nagusitzen da nabarmen. Eskolaz kanpoko jarduerak, bereziki kirolen ingurukoak, batez ere gaztelaniaz garatzen dira. Aitzitik, monitoreak bolondresak izaki, zaila gertatzen da beraien euskararen ezagutza bermatzea.

Bestalde, irakasle askok orain dela gutxi lortu dute eskatzen zitzaaien hizkuntz eskakizuna eta, ondorioz, kasu askotan komunikatzeko zailtasunak sortzen dira, eta horrek eragin negatiboa dauka irakaskuntzan.

Aurretiaz zehaztutako denboran hizkuntza eskakizun jakin bat lortu beharrak presioa sortu du irakasleen artean eta, kasu askotan, irakasleen artean zein ikasleen artean inposaketaren sentsazioa hedatuta dago.

Aipatutako alderdi negatiboak alde batera utzita, nabarmendu beharra dago biztanleria gero eta kontzientziatuago dagoela euskara ikasi beharraren inguruan. Horrekin batera, instituzioek sektoreari ematen dizkieten laguntzek ere aukerak zabal-tzen dituzte arlo honetan.



AHULEZIAK	MEHATXUAK
<ul style="list-style-type: none"><li>• Haur hezkuntzan D ereduko matrikulazioa geratu egin da.</li><li>• Euskara soilik, ikasgela barruan erabiltzeko hizkuntza gisa ikusten da. Ikasgeletatik kanpo, gaztelaniara jotzeko joera dago.</li><li>• Eskola orduraz kanpoko jarduerak gaztelaniaz egin ohi dira.</li><li>• Monitoreak boluntarioak direnez, horien euskalduntzean eragiteko zailtasunak daude.</li><li>• Gurasoen aldetik zailtasunak seme-alabei ikaskuntzan laguntzeko. Horrek matrikulazioa baldintzatzen du.</li><li>• Hezkuntza zentroak gutxi inplikatzeko dira ingurunearekin.</li><li>• Etorkinak hezkuntza prozesuetan integrazteko materiala falta da.</li><li>• Ikasleengan eragiteko, "engantxatzeko" zailtasunak.</li><li>• Komunikazioa galtzea. Hizkuntza eskakizunak egiaztatu berri dituzten irakasleak.</li><li>• Ikasle eta irakasleek inposaketa sententzioa dute.</li><li>• Hizkuntza kalitatearen murrizketa.</li><li>• Derrigorrezko irakaskuntzatik aurrera euskarazko eskaintza ez da hain handia: formazio zikloak, lanbide heziketa, etab.</li></ul>	<ul style="list-style-type: none"><li>• Gaztelaniaz eskaintza handiagoa eta erakargarriagoa da (kulturala, ikus-entzunezkoak...).</li><li>• Ingurune soziala ez da euskara erabiltzeko oso aldekoa: merkataritza, ostalaritza, familia... Gizartearen osaketa ez da erabileraren aldekoa.</li><li>• Euskarak orain dela urte batzuk zuen glamour/prestigioa galdu du.</li><li>• Ermuan Euskara sustatzearen alde administrazio lokalaren inplikazioa eskasa da.</li></ul>
INDARGUNEAK	AUKERAK
<ul style="list-style-type: none"><li>• Gurasoek aldeko jarrera dute eta horrek transmisioa errazten du.</li><li>• Biztanleen sentsibilizazio handiagoa.</li><li>• Ezagutzaren hazkunde esanguratsua. Ume gehienek euskaraz dakite.</li><li>• Euskarazko heziketa zikloen gero eta eskari handiagoa.</li></ul>	<ul style="list-style-type: none"><li>• Euskara ikasteko beharraren inguruan gero eta kontzientziatze handiagoa dago biztanleen artean.</li><li>• Lan merkatuak gero eta gehiago eskatzen ditu langile euskaldunak.</li><li>• Babes instituzional garrantzitsua.</li></ul>



### **3. zatia:**

## **HELBURU ESTRATEGIKO NAGUSIEN AURRERAPENA:**



## 7 HELBURU ESTRATEGIKO NAGUSIEN AURRERAPENA

Txosten honetan zehar Ermuan euskararen egoeraren azterketa eta diagnostikoa aurkeztu dira. Ondorengo planifikazio urratsak eman ahal izateko beharrezkoa eta ezinbestekoa da fase hau. Horregatik, fase hau ezin da prozesuaren amaierakotzat jo. Hori dela eta, Ermuan euskara biziberritzeko planteamendu estrategikoaren oinarri izan daitezkeen alor batzuk zehazteko esfortzua egitea komeni da.

Zentzu honetan, Ermuak, hausnarketa eta planifikazio prozesuari ekiteko informazio oso zehatza duela nabarmendu behar da. Herritarrei egindako elkarrizketetan oinarritutako azterketa, planifikatzeko tresna garrantzitsua da. Izan ere, azterketak helburuak kuantifikatzea ahalbidetzen du eta helburuak inplementatzerakoan jarraipena egiteko beharrezkoak diren adierazleak ezartzea errazten du. Beraz, diagnostiko fasearekin hasitako planifikazio prozesuarekin jarraitzea eta helburuak ezartzea gomendagarria da.

Ondoren planifikazio faseak zein alorretan oinarritu beharko liratekeen aipatuko dugu:

### ➤ **Euskararen ezagutza eta erabilerari balioa ematea.**

Prozesu osoan zehar baina batez ere, lantaldeetan, honakoaz jabetu gara: hainbat kolektiborentzat euskararen errealitatea erabat arrotza dela. Ez dute kontrako jarrerarik. Aitzitik, hizkuntzarekin ez dute inolako harremanik. Aurrekoaz gain, euskara posizio politiko zehatz batzuekin identifikatzen dela aipatu behar da. Beste zentzu batean, aukera politiko eta euskararekiko jarrrera ere identifikatzen dira.

Planteatzen dugun lan ildoak beraz, gai soziopolitikoak eta hizkuntza gaiak ezberdintzea izango du helburutzat. Aipaturikoa oinarritzko gai bat izanik, oso zaila da baina emaitza oso emaitza onak emango lituzke.

### ➤ **Biztanleen euskararen ezagutza maila areagotzea.**

Diagnostikoan zehar aipatu bezala, Ermuan euskara erabiltzeko zailtasunik nagusiena biztanleen euskararen ezagutza maila baxua da. Beraz, ezinbestean, euskararen egoera normalizatzeko udalaren helburu nagusia euskararen ezagutza sustatzea izango da. Horretarako, hainbat estrategia garatu daitezke: malgutasuna oinarri gisa izanez ikasketa talde espezifikoen eraketa, irakaskuntza arautuko eredu euskaldunen sustatzea, euskara ikasi, erabili eta



transmititzearen garrantziaz herritarrak kontzientziatu eta sentsibilizatzea, etab.

➤ **Udalerriko euskararen erabilera bultzatzea.**

Euskararen ikaskuntza sustatzeaz gain euskararen erabilera sustatzea ere beharrezkoa da, batez ere gazteen artean. Helburu hori lortzeko definitu beharreko estrategiak honakoak izan daitezke: hizkuntza paisaia euskalduntzea, euskaldun berriak integratzeko politikak, euskararen balorazioa, etab.

Zentzu honetan, garrantzia har dezakeen estrategietako bat honakoa izan daiteke: udal erakundeek euskarari garrantzia emateko estrategia garrantzitsu bat abian jartzea. AMIA matrizean aipatzen den bezala, Ermuko administrazioa ez dago behar adina inplikaturik eta sentsibilizatua euskararen normalizazioan. Baieztapen hori argi eta garbi nabarmentzen da diagnostikoan zehar egindako balorazio askotan: ekitaldi publiko gehienak gaztelaniaz egiten dira, estamentu politiko gehienek ez dute hizkuntza ezagutzen, jarrera argia falta da, etab.

Euskarari garrantzia emateko bideetako bat honakoa izan daiteke: euskara sustatzeko diru nahiz giza baliabideak eskaintzea. Hala ere, beste neurri multzo batek ere, irudiarekin zerikusia dutenak, eragina izan dezake: aurkezpen publikoetan euskara gehiago erabiltzea, herritarrentzako sentsibilizazio eta komunikazio kanpainak egitea, euskara sustatzearen aldeko Udalaren jarrera publikoa, etab. Herritarrei egindako inkestan, argi eta garbi ikusten da euskara sustatzearekiko balorazio positiboa. Beraz, alderdi hori oso kontuan hartu behar da.

➤ **Ermuko hizkuntza normalizazio prozesuan kultura, hezkuntza eta ekonomia arloko eragileen integrazioa eta inplikazioa.**

Zalantzarik gabe, Ermuko Udalari dagokio hizkuntza normalizazio prozesuan lider izatea. Hala ere, mota honetako normalizazio prozesu konplexu batean, Ermuko bizitza sozialean parte hartzen duten eta udalerriko hizkuntza egoeran eragiten duten eragileen arteko oinarrizko adostasuna beharrezkoa da. Helburu hori planteatuz, gutxieneko adostasunen inguruko akordio batzuk lortzea nahi da. Akordio horien bidez, ahaleginak bateratu eta eragile ezberdinek garatutako politiken osagarritasuna lortu nahi da, prozesuaren borondatezko-tasuna eta gradualtasuna azpimarratuz.